

## **2017KO AZAROAREN 6AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- 2018KO ORDENANTZA FISKALEN TIPO, KUOTA ETA TARIFEN ONARPENA.

2.- IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOKO BITARTEKOAK HEDATZEKO ZEGAMAKO UDALA ETA "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A." ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN ARAUEMAILEA ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak gai zerrendan agertzen ez den gai bat eztabaidatzeko proposamena egiten du. Zentzu honetan, Juan Jose Gorrotxategi Larrea zinegotziak (Zegama Lantzen) bere kargua uzteko borondatea adieraziz aurkeztutako idatzia.

Proposamenaren izaera ikusirik, Udalbatzarrak aho batez erabakitzen du gai hau bilkura

honetan eztabaidatzea.

## **1.- 2018KO ORDENANTZA FISKALEN TIPO, KUOTA ETA TARIFEN ONARPENA.**

Espedientea ikusirik.

Udalak ezartzen dituen zerga eta tasen Ordenantza Fiskalak ikusirik eta bertan jasotzen diren kuota eta tipoen zenbatekoak ikusirik, zenbateko horiek, orokorrean, mantentzea proposatzen da.

Orokorki, kuota eta tipoak mantentzea proposatzen bada ere, honako aldaketak bideratzea proposatzen du Alkateak:

- Tasen tipoei orokorki %1,9ko igoera ezartzea.
- Etxez etxez etxe zaborrak eta hiri hondakin solidoak jasotzeagatiko tasa, Sasieta Mankomunitateak aurreikusten duen igoera kontuan hartuz, herritarrei kobratzen zaien tasaren prezioa %3,7a igotzea.

Tasa honetan, honako atal berriak eta aldaketak jasotzea:

- Udalerrian kokaturiko jatetxeak eta otorduak ematen dituzten tabernak ... 710,59 euro.

(Atal honetan, eguneko menuak, ogitartekoak etab. eskaintzen dituzten Txanton eta Mordoxka tabernak sartuko lirartekeela adierazten da espreski).

- Langile bakar bateko enpresa edo autonomoak .... 196,00 euro.

(Atal honetan, herri gunean kokatzen diren ileapaindegia, fisioterapiak, masai lokalak, etab. sartuko lirarteke, denda zerbitzuetara espreski zuzentzen ez direnak).

- Hutsik dauden industria pabilioiak .....188,25 euro.

- Polikiroldegi, pilotalekuak eta Udal instalazioak erabiltzeko tasen barnean, atal berri bat ezartzea proposatzen da, honakoaren arabera:

Zenbait taldeei, gaua pasatzeagatik 5 euro kide eta gaueko.

Bestalde, Eguneko Zentroa, Jangela Soziala, Etxez Etxeko zerbitzua eta Babesturiko Etxebizitzaren kuota, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak aurkeztutako proposamenera egokituko dira.

Guzti hori ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Aipatutako proposamen horiek onartu, eta horien arabera, jarraian adierazten diren

zerga eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan zehazten diren kuota eta tipoen aldaketa behin-behingo onartzea, hauek 2016. urteko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direlarik:

### **1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.**

#### Portzentaia %

Ondasun Higiezin Hiritarren gaineko Zerga. 0,2566  
Landa Ondasun Higiezin gaineko Zerga. 0,6546

### **2. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA**

#### Portzentaia %

Impuesto sobre Actividades Económicas: 1,6467

### **3. TRAKZIODUN MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

Gutxienezko kuota igotzen dira, zerga, hurrengo tarifa-taulen arabera ezarriko delarik:

Potentzia eta ibilgailu mota \_\_\_\_\_ Kuota (€)

#### A) TURISMOAK

9 zaldi fiskaletik beherakoak .....	38,14
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	77,14
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	144,04
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak.....	162,46
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak .....	229,04
20 zaldi fiskaletik gorakoak .....	252,74

#### B) AUTOBUSAK:

21 plaza baino gutxiagokoak .....	176,35
21etik 50 plaza bitartekoak .....	251,21
50 plaza baino gehiagokoak .....	314,79

#### C) KAMIOIAK

1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak .....	89,45
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak.....	175,54
2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak.....	251,21
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak .....	314,79

#### D) TRAKTOREAK

16 Zaldi fiskal baino gutxiagokoak .....	37,35
16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak .....	58,77
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak .....	176,34

E) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ARRASTATUTAKO ATOI ETA ATOI TXIKIAK.

1000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko zama erabilgarridunek .....	37,35
1.000 kg.tik 2.999 kg zama erabilgarridunek .....	58,77
2.999 baino gehiagoko zama erabilgarridunek .....	176,34

F) GAINERAKO IBILGAILUAK

Ziklomotoreak .....	9,25
125 cc arteko motozikletak .....	9,25
125cc baino gehiago eta 250 cc arteko motozikletak .....	15,95
250 cc baino gehiago eta 500cc arteko motozikletak.....	32,03
500 cc baino gehiagoko eta 1.000 cc arteko motozikletak.....	64,12
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak .....	128,25

**3. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA, KARGA MOTAK**

Portzentaia %

Etxebizitza berriak egitea .....	4,5
Hobetzeak, handitzeak eta lanak lehendik dauden etxebizitzatan.....	4,5
Erretila konpontzeko lanak hiri-gunean .....	2
Baserrri berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea.....	2
Merkataritza lokal eraiki berriak berritzea .....	4,5
Jadanik ihardunenak dauden merkataritza lokaletan berrikuntzak .....	4,5
Industri eraikinak .....	2
Babes Ofizialeko Etxebizitzak .....	2
Egituran eraginik ez duten barne-lanak .....	1,5
Aurreroko puntuetan sartzen ez diren gainontzeko eraikuntza, instalakuntza eta lanak.....	4,5

**4. HIRI IZAERAKO LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.**

Hiri izaerako lurren balio-gehiakuntzaren gaineko zergaren oinarri ezargarrria finkatzeko erabiliko den urteko portzentaia taula:

Urte batetik 5 urtera bitartean .....	3,6
10 urtera bitartean .....	3,4
15 urtera bitartean .....	3,1
20 urtera bitartean .....	2,9

Zergapetze tipoa: % 5,34.

**HERRI JABARIAREN ERABILPEN PRIBATUA EDO APARTEKO PROBETXAMENDUA EGITEAGATIKO TASAK:**

1. UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK.

A) HESIAK, EDUKINONTZIAK,GRUAK ETA ALDAMIOAK:

<b>Kontzeptua</b>	<b>Euro</b>
1.- Hesiak, era guztietako lanetan: M2 edo zatiko egunean.....	0,81
2.- Obra ondarrak edo materialeak uzteko edukinontziak. Unitate; eguneko.....	2,99
3.- Gruak: Eraikuntzan erabilitako grua bakoitzeko, honen besoak bere ibilbidean bide publikoaren hegalkina hartzen duenean. Hilean edo zatiko .....	61,51
4.- Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan apoiatuak, horien azpitik libreki ibiltzea ezinezkoa bihurtzen duten euskarriekin: M2 edo zatiko egunean .....	0,81
5.- Defentsa berberak, aldamioak bide publikoetan apoiaturik daudenean, iladan jarritako euskarriekin, fatxadako lerroarekiko paraleloan eta bertatik 1 1,2 metro distantzia gehiagora, langarik gabe, altueran 3 metro baino gutxiagokoak eta azpitik ibiltzea posible denean. M2 edo zatiko egunean .....	0,29
6.- Defentsa bereberak, aldamioak erlaizean jarrita daudenean 3 m. baino gehiagoko altueran bide publikoarekin euskarririk gabe, eta horien azpian libreki ibil daitekeenean. M2 edo zatiko egunean .....	0,26
7.- Zintzilik jarritako aldamioak, hesirik gabe, m2 edo zatiko egunean .....	0,29
8.- Obrako ondarrak eta eraikuntza materialak: M2 edo zatiko egunean ..... Udalaren edukinontzitan (m3).....	1,32 12,99
9.- Egurrak eta landareak orokorrean; m2ko.....	1,32

#### AULKIAK ETA MAHAIK ALOKATZEA

Aulki bakoitzeko eta eguneko .....	0,47
Mahai bakoitzeko eta eguneko .....	1,09
Hesi bakoitzeko eta eguneko .....	1,09

#### B) POSTUAK, BARRAKAK, TXOZNAK, IKUSKIZUNAK, ETA ANTZEKOAK.

<b>Kontzeptua</b>	<b>Euro</b>
1.- Taberna, kafetegi eta antzekoak, M2 edo zatiko egunean .....	5,75
2.-Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituak mahaiak. M2 edo zatiko egunean .....	2,42
3.- Pastelak, gozokiak, fruitu sikuak, patata frijituak, jostailuak, bisuteria e.a. saltzeko txoznak:  - 3 m2 baino txikiagoak diren saltokiak eguneko ..... - 3 m2 baino handiagoak diren saltokiak eguneko .....	12,99 21,64
4.- Tiro txoznak eta bestelako jokua: M2 edo zatiko egunean .....	2,42

5.- Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak:

M2 edo zatiko egunean ..... 2,42

6.- Ziboak,tresna hegalariaik, kalesatxoak, zaldiko maldikoak, dumperrak eta orohar mugitzen diren aparailuak:

m2 edo zatiko egunean ..... 2,42

7.- Autotxoke pistak:

M2 edo zatiko egunean ..... 0,29

8.- Ikuskizun eta antzekoak:

M2 edo zatiko egunean..... 0,29

9.- Zirkoak:

M2 edo zatiko egunean ..... 0,26

C) TABERNA, TXOZNA , EDARITEGI ETA ANTZEKOAK HERRIKO JAIETAN:

Kontzeptua ..... Euro

- Herri jabetzako lurzoru estalia erabiltzea,  
herriko elkarteak:

M2 edo zatiko egunean ..... 4,31

- Herri jabetzako lurzoru ez estalia erabiltzea,  
herriko elkarteak:

M2 edo zatiko egunean ..... 2,25

Kultur eta Kirol Elkarteei, ordaindu beharreko tasaren zenbatekoan %50eko hobaria ezarriko zaie.

D) LETREROAK, MAHAIK ETA ALMAZENAMENDUAK.

Kontzeptua ..... Euro

Argidun letreroak ..... 57,65

Argigabeko letreroak ..... 43,63

Mahai txikiak ..... 11,72

Udal zoru nahiz hegalkin publikoa erabiltzea,erretiratutako gauzekin barne:

m2 edo zatiko egunean ..... 0,29

E) UDAL ZORU PUBLIKOAN JARRITAKO KIOSKOAK.

Kontzeptua ..... Euro

Egunkari, aldizkari, ipui, liburu eta antzekoak saltzeko: kiosko eta urteko..... 132,18

Izozki, errefreskagarri, gozoki, txitxeri, eta antzekoak: kiosko eta urteko. .... 229,28

F) ASTEROKO FERIKO POSTUAK, JOSE MAIORA ENPARANTZAN ETA UDAL ARKUPEETAN.

Kontzeptua ..... Euro

Udaletxeko arkupeak okupatzea 1,2,3 arkuak eguneko.....	5,75
Udaletxeko arkupeak okupatzea, 5, 6 arkuak, eguneko .....	4,38
Udaletxeko arkupeak okupatzea, 7, 8 arkuak, eguneko .....	3,56
Plaza okupatzea, m2 eta eguneko .....	0,71
Postua gordetzea, urte osoa .....	44,03
Udaletxeko arkupetik kanpo, plazan kamioiko eta eta eguneko.	5,79
-Ibilgailuarekin plaza okupatzea, eguneko .....	4,14
<b>-Furgonetaz plaza okupatzea, eguneko .....</b>	<b>5,52</b>

**G) HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUAREN, ZORUPEAREN EDO LURGAINAREN BAKARREKO ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA**

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ( zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan) ordaindu beharreko prezioa, % 1,5 izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko zaie

H) HERRI BARATZEN ERABILERA-KUOTA: 5 euro/hilabeteko.

I) UDAL EGURTEGIEN ERABILERA-KUOTA: 10 euro/hilabeteko.

**ZERBITZUAK ESKAINI ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK:**

- **POLIKIROLDEGI, PILOTALEKUAK ETA UDAL INSTALAZIOAK**

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
- Partikularrek pilotalekua alokatzea, eguneko.....	765,00
- Partikularrek pilotalekua alokatzea, egun erdirako.....	357,00
- Herritarrek, pilotalekua erreserbatzea, orduko.....	9,00
- Herrikoak ez direnek, orduko .....	17,00
-Futbitorako frontoia erreserbatzea, herritarrek .....	16,00
-Futbitorako frontoia erreserbatzea, kanpotarrek.....	32,00
- Dutxa (bazkideak ez direnak) .....	2,00

- Gimnasioko kuotak.

Hileko abonua .....	23,00
Hiru hileko abonua.....	70,00
Sei hileko abonua.....	141,00
Urteko abonua (gehi igerilekua).....	258,00
Eguneko sarrera.....	6,00
Sauna, 10 saioko bonua .....	23,00
Urteko familia-bonua (ezkondu eta 18 urtetik gorako seme-alabak. Hauek bonuan sartzeko, gurasoekin bizi eta ikasten edo langabezian egon behar dute):	

1º .....	258,00
2º.....	206,00
3º .....	182,00
4º .....	155,00

- Ikastaroak

Bazkideak (hilabetea) ..... 30,00

Bazkideak ez direnak (hilabetea)..... 42,00

- Zenbait taldeei eskolako gimnasioan gaua pasatzeagatik (kide eta gaueko).....5,00

• **HERRIKO FESTATAN, BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.**

Kontzeptua ..... Euro

a) Herriko jaietan, edaritegi, taberna, edo antzekoak leku pribatuan irekitzeko baimena emateagatik, TASA, herriko elkarte edo taldeei ..... 468,48

b) Herriko jaietan, iharduera iraunkorra duten taberna publikoei, haunditzeko baimena emateagatik TASA, leku edo zoru pribatua erabiliz ..... 347,14

c) Herriko jaietan, garbiketa bereziengatik, iharduera iraunkorra duten tebernei TASA ..... 173,86

Zernolako honetatik kanpo geratako lirateke a) eta b) ataletan sartzen diren sujeto pasiboak, era berean, Herri-lurra okupatzeagatik Prezio Publikoa ordaintzen duten taberna eta txoznak ere.

• **UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINI ETA EMATEAGATIKO TASA.**

**Kontzeptua** ..... **Euro**

Herritarren ehorzketa udal nitxoetan ..... 62,53

Kanpotarren ehorzketa udal nitxoetan ..... 187,38

Herritarren ehorzketa panteoian, udal langileak ehortzita ....49,98

Herritarren ehorzketa panteoian, partikularrak ehortzita .... 31,95

Kanpotarren ehorzketa panteoian, udal langileak ehortzita 100,86

Kanpotarren ehorzketa panteoian, partikularrak ehortzirik... 64,32

• **ETXEZ ETXE ZABORRAK ETA HIRI ONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEAGATIKO TASA.**

**Kontzeptua** ..... **Euro**

Jendea bizi deneko etxebizitza ..... 189,35

Jendea bizi ez den etxebizitza..... 107,58

Baserriak, asteroko zerbitzuagatik ..... 142,05

Udalerrian kokaturiko jatetxeak eta otorduak ematen dituzten tabernak . 710,59

Taberna, dendak eta industriak .....331,44

Langile bakar bateko enpresa edo autonomoak ..... 196,00

Hutsik dauden industria pabilioiak ..... 188,25

- HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.

Kontzeptua Euro

- Proiekturik behar ez duen lana .....32,83
- Proiektua behar duen lana .....158,02
- Bereizte baimenak ..... 24,32
- Partikular baten eskariz, hirigintza espediente bat tramitatzea:

Xehetasun azterlana .....1.302,06  
 Urbanizazio Proiektua ..... 1.302,06  
 Arau Subsidiarioen Aldaketa .....1.953,12  
 Hondamen Espedientea .....1.041,64

Aurreko hiru ataletan agertzen ez diren gainerako hirigintza espedienteak..... 694,41

- TAXI BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA.

Kontzeptua Euro

- 1.- Baimenaren Udal emakida bakoitzeko ..... 347,19
- 2.- Baimenaren erabilpena eta ustiapena urtean ..... 17,32
- 3.- Baimendutako ibilgailuen aldaketa ..... 26,02
- 4.- Baimenaren eskualdaketa ..... 347,19

- JARDUERA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEAGATIKO TASA.

Jarduera sailkatuen baimena behar duten jarduera sailkatuak:

Merkataritza ..... 434,01  
 Industria eta ostalaritza .....834,03  
 Zerbitzuak, garaiek eta gainerakoak..... .... 834,03

Jarduera sailkatuen baimena eman eta aurretiazko komunikazioa aurkeztu eta ondorengo egiaztatzea egitea, jarduera sailkauten baimena behar duten jardueren kasuan.

Merkataritza ..... 143,66  
 Industria eta ostalaritza .....278,20  
 Zerbitzuak, garaiek eta gainerakoak..... .. 278,20

Sektoreko legerian jasotako baldintzak bete izana egiaztatzeko jarduera egitea, aurretiazko baimen edo kontrolari lotuta ez dauden jarduerak direnean:

Merkataritza ..... 216,97  
 Industria eta ostalaritza .....434,01  
 Zerbitzuak, garaiek eta gainerakoak..... ... 216,97

- FOTOKOPIAK EGITEAGATIK ETA FAX ZERBITZUARENGATIK TASA.

Kontzeptua	Prezioa orrialdeko
Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan.....	0,10 €.
Fotokopiak koloretan A4 tamainan.....	0,60 €.
Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan .....	0,20 €.
Fotokopiak koloretan A3 tamainan .....	1,20 €.
Fotokopiak kultur erakundeei Kultur Etxean	
Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan .....	0,06 €.
Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan .....	0,10 €.
Fax zerbitzua .....	0,60 € orrialdeko.

- ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA

Arrisksuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea .....	13,21
Arrisksuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritza .....	13,21
Arrisksuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena ematea.....	13,21

- GIZARTE ZERBITZUAK

#### EGUNEKO ZENTROA

Eguneko Zentroa erabiltzen dutenek ordaindu behar duten kuota erabilitzearen hileroko dirusarreraren arabera finkatuko da. Ez dira kontutan hartuko familia-unitateko beste kideen dirusarrerak. Hileroko dirusarrera erabiltzaileen pentsio edo bestelako ordainsaria izango da.

Zerbitzuaren eguneko kouta, garraioa barne ..... 15,50 €

#### JANGELA SOZIALA

Jangelaren eguneko menuaren kostua..... 6,14 €

#### BABESTURIKO ETXEBIZITZA

Hileroko kuota, zerbitzu guztiak barne ..... 715,72 €

#### ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena ondorengo ekarpenen taularen arabera zehaztuko da:

Orduko kostua: 19,80 €.

EKARPENA	SARRERAK
1,50 %	EAEAP 110 % arte
4%	EAEAP 111-115%
8%	EAEAP 116-125%
15%	EAEAP 126-150%
24%	EAEAP 151-175%
35%	EAEAP 176-200%
48%	EAEAP 201-225%
61%	EAEAP 226-250%
74%	EAEAP 251-275%
87%	EAEAP 276-300%
100%	EAEAP >300%

- UDAL IGERILEKUAK

Sarrera

Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean ..... 2,00 €  
Helduak; 15 urtetik gorakoak ..... 4,00 €

Denboraldiko abonua pertsonala

Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean .....28 ,00 €  
Helduak; 15 urtetik gorakoak ..... 39,00 €

Familiako abonua

Seme-alaba bat duten bikoteak \*: ..... 67,00 €  
Bi seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak \*:..... 78,00 €

(\* 20 urtera bitarteko ikasleak diren seme-alabak)

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, behin-behingo akordio hau, Udaletxe honetako iragarki oholean, 30 laneguneko epean jendaurren jarriko da, epe horren barnean, edonork, espedientea aztertu eta ondo deritzon erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, jendaurren jartze hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, epea, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko delarik.

Jendaurren egoteko legezko epea igaro ondoren, inolako erreklamaziorik jaso ez bada, hartutako akordio hauek, behin-betikotzat joko dira, inolako akordio berririk hartu behar izan gabe.

Hirugarrena.- Lehenengo puntuan jasotzen ez diren eta indarrean dauden zerga edo tasen kuota edo tipoak mantentzea.

## **2.- IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOKO BITARTEKOAK HEDATZEKO ZEGAMAKO UDALA ETA "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A." ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN ARAUEMAILEA ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkateak, adierazten du, Udal Informatika zerbitzutik, lizenpe ematen dituen zerbitzu elektronikokoak arautzeko hitzarmena bideratzeko informazioa jaso dela.

Zentzu honetan, hitzarmena onartzea interesgarria dela iritziz, honen onarpena egitea proposatzen da.

Hitzarmenaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau adierazten du:

Lehena.- lizenpe ematen dituen zerbitzu elektronikokoak arautzeko hitzarmena onartzea,

honako honen arabera:

“Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren XXa

## BILDUTA

Batetik, XXXXXXX, XXXXXX den aldetik

Aurrerantzean, XXXXXX

Bestetik, **Izaskun Urrestarazu Amondarain and.**, *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE, S.A.*ren ordezkaria den aldetik, haren izenean eta ordezkartzan.

Zuzendariari dagozkion ahalmenak ditu, 2016ko martxoaren 21ean, Alfredo Pérez Ávila Vitoria-Gasteizko notarioaren aurrean emandako ahalorde-idazkiaren indarrez —haren protokolo 773 zenbakiarekin—, eta behar bezala inskribatuta dago Arabako Merkataritza Erregistroan, 1541 liburukian, 79 folioan, VI-8926 orrian.

Aurrerantzean IZENPE.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri, eta hau

## AZALTZEN DUTE

1. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Lege* berriak administrazio elektronikoaren ezarpena sakontzen du, gaur egungo gizarteak dituen beharrei erantzun dieten eta herritarrentzat administrazio-prozedurak sinpleagotuko dituzten prozedura arinagoak eta gardenagoak lortzeko. Bitarteko elektronikoaren erabilera bermatzeko eta orokortzeko, Administrazioak beharrezko sistemak eta aplikazioak jarri beharko ditu herritarren esku.

Administrazio elektronikoa eusten duten zutabeetako bat da interesdunek prozeduran erabil ditzaketen identifikazio- eta sinadura-sistemak zehaztea. Alderdi horiek lege-testu horren 9. artikulutik 12. artikulura bitartean arautzen dira.

9. artikulua ezartzen du Administrazio Publikoek interesdunen nortasuna egiaztatu behar dutela administrazio-prozeduran, eta, 2. atalean, aintzat hartzen ditu onartzen diren identifikazio elektronikoko sistemak. Aurreikusten du interesdunek aurrez erregistratuta egon beharko dutela erabiltzaile gisa, haien nortasuna bermatzeko moduan.

Bestalde, 10. artikuluan, Administrazio Publikoek onartzen dituzten sinadura-sistemak arautzen dira.

2. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, haien sozietate informatikoen bitartez, eratu zuten IZENPE sozietatea, identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema propio eta komun gisa jarduteko. IZENPEren funtsezko helburua da erakundeen zerbitzuaren esku jartzea herritarrek eta enpresek elkarren artean harremanetan jartzeko eta Administrazioekin harremanetan jartzeko behar dituzten bitartekoak, betiere zerbitzu publikoetara sartu ahal izan daitezzen, integritatea, konfidentziasuna, ez-ukatzea eta benetakotasuna bermatuta. Zerbitzu horiek ezartzean, ezinbestekoa izango da identifikazio elektronikoa.

Arauzko testuinguru horretan, IZENPEk pertsona fisikoen identifikazio eta sinadura elektronikoa ahalbidetzen duten B@k eta B@k Q bitartekoak garatu ditu. Bi sistema horiek honela osatuta daude: erreferentziarako zenbaki bat; pasahitz bat; koordinatu-joko bat, B@k Qren kasuan; eta sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gabe bat (B@k) eta kualifikatu bat (B@k Q), IZENPEren biltegi zentralizatu batean jaulkitzen dena.

Hitzarmen horren esparruan, IZENPEk pertsonak identifikatzeko beste faktore seguruago batzuk txertatu nahi ditu, hala nola emailOTP, smsOTP edo faktore biometrikoak — aurpegiko ezaugarriak eta hatz-aztarnak—.

3. *Barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoa eta konfiantzako zerbitzuak arautzen dituen eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduak ezartzen duenez, konfiantzako zerbitzu baterako ziurtagiri kualifikatu bat egitean, konfiantzako zerbitzuen egileak zuzenean edo hirugarren baten bidez egiaztatuko du ziurtagiri kualifikatua ematen zaion pertsonaren nortasuna — hirugarren horrek erregistro-erakundearen izaera izango du—.*

Testuinguru horretan, XXXXX-(e)k eta IZENPEk pertsona fisikoak elektronikoki identifikatzeko bitartekoak hedatzeko hitzarmen arauemaile hau sinatu nahi dute. Bitarteko horiek datu biometrikoetan oinarrituko dira, eta XXXXX IZENPEren erregistro-erakundea izango da.

Horretarako, bi aldeek honako hitzarmen hau adostu dute, eta klausula hauen arabera zuzenduko da

## KLAUSULAK

### **LEHENA. XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da XXXXX eta IZENPE erakundeen arteko lankidetzaren esparrua ezartzea, XXXXX IZENPEren erregistro-erakunde gisa jardun dezan identifikazio digitaleko bitartekoak egiteko.

### **BIGARRENA. INDARRALDIA**

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, hitzarmena sinatzen denetik hasita.

Indarraldia amaitu aurretik, aldeek edozein unetan, eta aho batez, erabaki dezakete hitzarmena beste lau urte gehigarriaz luzatzea, edo hitzarmena bertan behera uztea.

### **HIRUGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA**

Hitzarmen honek ez du betebeharrerik ekonomikorik ekarriko aldeetarako.

## LAUGARRENA. ALDEEN BETEBEHARRAK

1. XXXXX erakundearen betebeharrak izango dira, kasuan kasuan ezartzen den irismenarekin:

- Bigarren klausulan aurreikusten diren erregistro-erakundearen zereginak egitea, [IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) ezarritakoari jarraituta —deklarazio hori [www.izenpe.eu/dpc](http://www.izenpe.eu/dpc) web-orrian dago eskuragarri—. Bere jarduna efizientziaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarritzea.
- IZENPEren hornitzaileen segurtasun-politika betetzea, [IZENPEren Hornitzaileen Segurtasun Politika](#) —[www.izenpe.eu](http://www.izenpe.eu) web-gunean dago eskuragarri—.
- Kasuan kasuan eskatzen den dokumentazioa bidaltzea IZENPEri (eskatzaileak sinatutako jaulkitze-eskaera, dokumentazio identifikatzailea).
- Identifikazio digitaleko prozesua sortzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren argibideak ematea IZENPEk ematen dituen identifikazio bitartekoen eskatzaileei.

2. IZENPEren betebeharrak izango dira, kasuan kasuan ezartzen den irismenarekin:

- XXXXX erakundeari azaltzea nola egin behar dituen erregistro-erakundearen zereginak, eta haren esanetara jartzea sor daitekeen edozein gauzatarako. Ondorio horietarako, beharrezko prestakuntza eskaintzea nortasun digitalak sortzeaz eta egiaztatzeaz arduratuko diren langileei.
- XXXXX erakundearen esku jartzea erabiltzaileak erregistratzeko eta identifikatzeko beharrezkoak den softwarea.

## BOSGARRENA. ALDEEN ERANTZUKIZUNA

1. XXXXX erakundearen erantzukizunpean dago:

- [IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) zehazten dena betetzea, aplikatzekoa den horretan.
- Zerbitzua egoki egitea, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.
- Hitzarmen honen arabera dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteei erantzutea IZENPEren aurrean.

2. IZENPEren erantzukizunpean dago:

- Hemen zehazten dena zuzen egitea.
- Hitzarmen honen arabera dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragindako kalteei erantzutea.
- Zehazki, konfiantzako zerbitzuen egile gisa, bere jardueraren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalteei eta galerei erantzutea, baldin eta hitzarmen honek edo ziurtapen eta konfiantzako zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriarekin jarduten badu.

[IZENPEren Hornitzaileen Segurtasun Politika](#) —[www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) web-gunean dago eskuragarri—.

## **SEIGARRENA. HITZARMENAREN AMAIERA**

Hitzarmen hau amaituko da honako kausa hauetakoren bat gertatzen denean:

- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, hura luzatzea adostu gabe.
- Sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea.

Edonola ere, aldeetako edozeinek betebeharrak betetzen ez dituen aldeari errekerimendua egin diezaioke epe jakin batean bete ditzan bete gabeko betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori alde sinatzaileei jakinarazteaz gain, hitzarmena gauzatzearen jarraipena, zaintza eta kontrola egingo duen mekanismoaren arduradunari ere jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan adierazten den epea amaitu, eta betebeharrak oraindik bete ez badira, errekerimendua zuzendu zuen aldeak alde sinatzaileei jakinaraziko die hori hitzarmena amaitutzat emateko kausa dela, eta amaitutzat joko da hitzarmena. Hitzarmena kausa horren ondorioz amaitzeak, bestalde, eragin diren kalteak ordaintzea ekar dezake, hala aurreikusi bada.

- Indarrean dagoen legerian ezartzen diren gainerako kausak.

Hitzarmena amaitzen bada, edo bertan behera geratzen bada, aldeek bete egin beharko dituzte kontratuaren amaieraren aurretik beste aldearekiko eta hirugarren batzuekiko haien gain hartu dituzten betebeharrak.

## **ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA**

Jarraipen Batzorde Mistoan eratu ahal izango da hitzarmen hau behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko eta koordinatzeko. Lau kidek osatuko dute batzordea, bi **XXXXX** erakundearen ordezkarietan eta beste bi kide IZENPEren ordezkarietan.

Batzordeko presidente postua txandaka beteko dute, 6 hilabeteko aldietan eta IZENPEk hasita.

Bi aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da batzordea eta, gutxienez, hiru hilean behin, lankidetzaren emaitzak eta gorabeherak aztertzeko.

## **ZORTZIGARRENA. ALDAKETA**

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten aldeek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak Hitzarmenari gehituko zaizkio addenda moduan.

## **BEDERATZIGARRENA. JURISDIKZIOA**

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi

ebazteko, Vitoria-Gasteizko Auzitegien eta Epaitegiaren mende jarri beharko da.

Aurrekoarekiko adostasuna adierazteko, hitzarmena sinatu dute bi aldeek. “

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

### **3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/01017 erabakia, urriaren 2koa, energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedientari atxikitzeko.
- 02/01017 erabakia, urriaren 3koa, Pedro Jose Rodrigo Albizuriri, 2016-2017 kontratazioari dagozkion 136,43 euroko atzerapenak onartuz eta ordainketa bideratuz.
- 03/01017 erabakia, urriaren 3koa, 2017ko San Bartolome jaietan garbiketa bereziengatik jarduera iraunkorra duten tabernei ezartzen zaien tasen kitapena onartuz.
- 04/01017 erabakia, urriaren 3koa, 2017ko San Bartolome jaietan txosna jartzeagatik eta zenbait hartune egiteagatik tasen eta bideratu beharreko ordainketen kitapena onartuz.
- 05/01017 erabakia, urriaren 3koa, polikiroldegian burutzen ari diren zenbait egokitzapen lanen barnean, Seguritasuna enpresako Izturitz Zabaleta teknikariak, Geuria Carpinteria de Aluminio S.L. enpresak burutuko dituen lanen “arrisku ebaluaketaren onespenez txostena” onartuz.
- 06/01017 erabakia, urriaren 5koa, zenbait fakturen erlazioa onartuz.
- 07/01017 erabakia, urriaren 5koa, langileen ordainsarien atzerapenen ordainketak onartuz.
- 08/01017 erabakia, urriaren 10ekoa, Ostatua eta Kasinoko alokairuen abuztuko fakturak onartuz.
- 010/01017 erabakia, urriaren 10ekoa, 10 zenbakidun fakturen zerrenda onartuz, guztira, 55.238,75 eurokoa.
- 011/01017 erabakia, urriaren 18koa, 5074 fakturen erlazioa onartuz, guztira 37.483,76 eurokoa.
- 012/01017 erabakia, urriaren 27koa, 11 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira, 90.890,83 eurokoa.
- 013/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, 12 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira, 9.540,97 eurokoa.
- 014/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, ezkontzarako ahalmena eskuordetuz.
- 015/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, 5224 fakturen erlazioa onartuz, guztira 43.261,47 eurokoa.
- 016/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, 5226 fakturen erlazioa onartuz, guztira 5.266,34 eurokoa.
- 017/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa onartuz.
- 018/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, zenbait fakturen erlazioa onartuz.
- 019/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, Udal langileen ordainsarien ordainketa onartuz.

- 020/01017 erabakia, urriaren 30ekoa, Ainara Esnaola Ormaechea anderea administrari laguntzaile bezala aldi-baterako izaerarekin kontratua luzatzea.
- 01/01117 erabakia, azaroaren 2koa, Osakidetzarekin 2017ko klausula gehigarria onartzea eta Osakidetzari 8.962,80 euroko zenbatekoari dagokion ordainagiria bidaltzea erabakiz.
- 02/01117 erabakia, azaroaren 2koa, 13 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira, 5.324,10 eurokoa.

#### **JUAN JOSE GORROCHATEGUI LARREA ZINEGOTZIAK KARGUA UZTEKO ERABAKIA ONARTZEA**

Zegama Lantzen Taldeko Zinegotzia den Juan Jose Gorrochategui Larrea jaunak, arrazoi pertsonalak direla eta, zinegotzi kargua uzteko erabakia aurkezten du.

Hori ikusirik, Udalbatzarrak, hau osatzen duten legezko bederatzikideetatik, etorritako zortzien aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Juan Jose Gorrochategui Larrea jaunak, Zegamako Udaleko zinegotzi kargua uztearen arrazoi hartzea.

Bigarrena.- Juan Jose Gorrochategui jaunari karguan egindako lana eskertzea.

Hirugarrena.- Hauteskundeetako Batzorde Zentralera, erabaki hau, aurkeztutako idatziarekin batera bidaltzea.

#### **4.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), Maria Guadalupe Sarasola andereak eta Angel Irigoras jaunak Udalean aurkeztutako idatziari buruz galdetzen du, non, guda garaian erahil zituzten zenbait Zegamarren izenak Oroimenaren txokoa azaltzeko eskatzen den. Alkateak erantzuten du kasu horiek jasotzeko eragozpenik ez dagoela, nolahi ere, Arantzadi elkarteari kontsulta egin zaiola dio, erantzunaren zain daudelarik.

Ildo honetatik ere, bilkurakideak, Juan Telleria eta Aseguinolaza Anaiak kaleen izen aldaketari buruz hitz egiten dute. Alkateak, hurrengo bilkura batean honi buruzko erabakia aztertuko dela esaten du, proposatzen diren izen berriak, Etxeraia kalea (Juan Telleria kalearen ordez) eta Askatasunaren etorbidea (Aseguinolaza Anaiak kalearen ordez) izatea aurreikusten delarik.

Era berean, Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) hilerrian zenbait falangisten izenak jasotzen dituen plaka agerian dagoela adierazten du.

- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu) Euskara 365 programa martxan jartzeko aukeraz, udaleko Euskara eta Kultura Teknikaria eta Emun enpresako ordezkari batekin edukitako bileraren berri ematen du. Zentzu horretan, udal langileak, gaur egun dituen lanak direla eta, bere kasuan, lan berri hori bere gain hartzeko ezintasuna adierazi zuela esaten du. Emun enpresari lanen aurrekontua eskatu zitzaioela adieraziz gaia aztertuko dela adierazten da.

- Bilkurakideak, erropa jasotzeko edukinontzia beteta dagoela adierazten dute, gaiaz eztabaidatuz. Alkateak Sasietari arazoa helaraziko zaiola adierazten du.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017ko .....k .....

**O.E./ VºBº**  
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2017.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**